


BIZITEGI ERAIKINA
D MAILA

MIGEL IMAZ 8



Egilea eta data: Francisco Urcola; 1925

Deskribapena

Mehelinen arteko eraikina, behe oina eta jatorrizko sei goi oin dituen, azkena atzeraemana, erdiko gorputza izan ezik. Denak jatorrizkoak dira. Harlanduzko fatxada jasoduraraino. Behe oina kareharriz estalita jatorriz. Hormigoizko begiratoki bikoitza elementu moldekatuekin bao zentraletan. Proiektu komuna Usandizaga 17 eta 19rekin.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.

Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.

Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira.

2. Berariazko erregimena.

A. Babesetik kanpo utzitako elementuak edo zatiak: ez.

B. Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harlanduzko elementuak; elementu moldekatuak; behe oineko estaldurak.

C. Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari loturikoak, hala badagokio.